



BILBOKO  
HEZKUNTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
DE BILBAO

**Gradu Amaierako Lana**

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2021/2022 ikasturtea**

**MUGIMENDU AUTONOMOA ETA PSIKOMOTRIZITATEA:  
LOTURAK ETA KORAPILOAK.**

**Egilea: Ariane Mirandona Alvarez**

**Zuzendaria: Nagore Martinez Merino**

**Leioan, 2022ko ekainaren 1-ean**

## AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4
2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala .....	5
2.1. Mugimendu Autonomia.....	5
2.2. Psikomotrizitatea.....	7
2.2.1. Definizioa eta eboluzioa.....	7
2.2.2. Korronteak.....	9
2.2.3. Aucouturierren Praktika Psikomotorra.....	10
2.2.4. Psikomotrizistaren papera PPA.....	12
3. Metodologia .....	13
4. Emaitzak .....	15
5. Eztabaida .....	20
6. Ondorioak.....	22
7. Erreferentzia bibliografikoak .....	24

## MUGIMENDU AUTONOMOA ETA PSIKOMOTRIZITATEA: LOTURAK ETA KORAPILOAK

**Ariane Mirandona Alvarez**

UPV/EHU

Ikerketa honen helburua Mugimendu Autonomoa aurrera eramaten duten lau eskolen errealitatea jasotzea, psikomotrizitatean aldaketarik ez ezartzearen arrazoia ezagutzea eta pedagogia honek psikomotrizitatean izan duen eragina aztertzea izan da. Pedagogia honekin lan egiten duten eskoletako Haur Hezkuntzako lau irakasle eta Berritzeguneko ahokulari nagusia elkarrizketatu dira. Jasotako datuek adierazi dute Psikomotrizitatea Mugimendu Autonomoaren aurretiko askatasun (g)unea dela. Gainera, hurrek mugimenduaren bitartez ikasten dutela egiaztatu da. Horrez gain, espazioaren berantolakuntzaren garrantzia, ekosistemetako material guztia haurren altuerara egokituta izatea eta prozesuari azken emaitzari baino arreta gehiago jartzea garrantzia handiko puntuak direla ondorioztatu da.

*Mugimendu Autonomoa, psikomotrizitatea, espazioa, autonomia, ekosistemak*

El objetivo de este estudio ha sido recoger la realidad de las cuatro escuelas que llevan a cabo el Movimiento Autónomo, conocer la razón por la que no se introducen cambios en la psicomotricidad y analizar el impacto de esta pedagogía en la psicomotricidad. Se ha entrevistado a cuatro profesores de Educación Infantil de las escuelas que trabajan con esta pedagogía y a la asesora principal del Berritzegune. Los datos recogidos indican que la Psicomotricidad es un espacio y momento de libertad previo al Movimiento Autónomo. Además, se ha comprobado que los niños aprenden a través del movimiento. Se concluye que la importancia de la organización del espacio, la adecuación de todo el material de los ecosistemas a la altura de los niños y la mayor atención al proceso que al resultado final son puntos importantes.

*Movimiento Autónomo, psicomotricidad, espacio, autonomía, ecosistemas*

The aim of this study is to collect the reality of four schools that carry out Autonomous Movement, to know the reason why changes in psychomotricity are not introduced and to compare Berritzegune's principles with reality. For this purpose, four teachers from schools that work with this methodology and the main adviser of Berritzegune were interviewed in depth and semi-structured interviews. The data collected indicate that psychomotricity is a freedom prior to Autonomous Movement. In addition, it has been learned that children learn through movement. It is concluded that the importance of all the material of the ecosystems at the height of the children and the greater attention to the process than the final result are important points.

*Autonomous Movement, psychomotricity, space, autonomy, ecosystems*

## 1. Sarrera

Bizitza osoa ikasten igarotzen dugu, bizitza bera etengabeko ikaskuntza da eta aldaketak ikaskuntza horren ardatz dira. Gizartea aldatzen den heinean, hezkuntza ere aldatu behar da, hau da, gizarteak aurrera egiten duen bezala, hezkuntzak ere eraldatzen eta eguneratzen joan behar du. Horren isla da, gaur egun, zenbait pedagogia desberdin aurkitzea.

Haur Hezkuntzako dekretua argitaratu zenean, 2015.urtean eskola askok ez zekiten nola erantzun curriculum horretan azaltzen ziren konpetentzia eta edukiei. Beraz, Berritzeguneak curriculum hori aurrera eramateko era bat planteatu zuen Mugimendu Autonomoa deritzona. Gaur egun, pedagogia honetan parte hartzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko eskolak guztira 110 dira. Esan beharra dago, eskola horien gehiengoa Arabari dagokiola eta Bizkaia aldiz, gutxiengo horren barnean legokeela. Datu hauek erakusten dute, pixkanaka, gero eta eskola gehiago direla pedagogia honetan murgiltzen direnak.

Unibertsitatean, Berrikuntza minorreko ikasleak, UBE deituriko proiektuan parte hartu genuen. Proiektu horren muina Mugimendu Autonomoan murgilduta dauden bost eskola bisitatzea eta beraien errealitateaz jabetzea izan zen. Bisita horien bidez ohartu nintzen pedagogia aldaketa ezartzean espazio guztietan aldaketak ezarri zirela psikomotrizitatea lantzeko espazioan izan ezik. Pedagogia honek, Haur Hezkuntzako espazioan eraldaketa izugarriak ekarri baldin baditu, zergatik ez da psikomotrizitate gela ezertxo ere aldatu? Horren zergatia bilatzeko asmoz, ikerketa txiki bat egitea erabaki nuen.

Gradu amaierako lan honetan, marko teorikoari dagokionez, Mugimendu Autonomoaren eta psikomotrizitatearen arlo desberdinak jorratuko ditut: lehendabizi, definizioa eta eboluzioa, korronteak, Aucouturierren Praktika Psikomotorra eta Psikomotrizistaren papera aurkituko dira. Ikerketa hau aurrera eramateko, Haur Hezkuntza etapako lau irakasle eta Berritzeguneko aholulari nagusia elkarrizketatu dira, metodologia atalean azaltzen direnak. Ondoren, elkarrizketa horietan jasotako emaitz esanguratsuenak aztertu eta eztabaidatu dira. Bukatzeko, ikerketa honetatik ateratako ondorioak idatzi dira.

## 2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

### 2.1. Mugimendu Autonomoa

Gaur egun, Haur Hezkuntzaren arloan badaude zenbait pedagogi desberdin, Chokler (El concepto de la autonomía en el desarrollo infantil temprano), Pikler (Moverse en libertad) eta Malaguzzi (Reggio Emilia), besteak beste. Rodríguez-ek (2016) aipatzen duen bezala, pedagogia hauek berritzaileak bezala ulertu arren, zenbait hamarkada dituzte eta mundu osoan hedatuta daude. Gainera, duela urte gutxi batzuk, gaur egun, Mugimendu Autonomoa terminoaz ezagutzen den metodologia berritzaile bat jarri zen martxan. Esan beharra dago, Mugimendu Autonomoa Euskal Autonomia Erkidegoko eskola publikoetan ematen dela, Haur Hezkuntzako etapan, hain zuzen. Nere Inda<sup>1</sup>-ren hitzetan, Mugimendu Autonomoa dekretua aurrera eramateko modu bat da, hau da, iturri desberdinetatik ateratako ideiak kontuan hartuz sortutako pedagogia da. Metodologia honen markoa 237/2015 curriculumak da eta zenbait konpetentzietan oinarrituta dago, hala nola, “haurrak bere garapen propioa gara dezan norbera zein den jakitea, inguruneak nola funtzionatzen duen barneratzea eta bi aspektuak uztartzerakoan bere lekua era konpetentean finkatzea” (10. or.).

HH oinarri<sup>2</sup> webgunean azaltzen den bezala, metodologia honetan zortzi printzipio edo oinarri garrantzitsu aurki daitezke, hala nola,

1. Haur bakoitzaren garapena ahalbideratzea eta garapen osoa eta orekatua lortzea. Horretarako, haurrek beraien gorputzaz baliatuz ingurunea ezagutzeko eta barneratzeko aukera dute, zentzumenen, esperientziaren, manipulazioaren, bizipenen bidez eta ondorioak ateratzen dituzte, kontziente dira eta ezagutzaren berrantolaketak egiten dituzte.
2. Autonomiaren printzipioa. Haurrei ardurak hartzeko, kontzientzia izateko, errespetatzeko, sortzailea eta ekintzailea izateko aukera eskaintzen zaie.

---

<sup>1</sup> Nere Inda, Berritzeguneko Mugimendu Autonomoaren arduraduna da.

<sup>2</sup> <https://www.hhoinarri.net/>

3. Ingurune fisikoa. Honetan, garrantzitsua eta ezinbestekoa da erabiltzen dugun guztia errealitate izatea mundua ulertzeko eta gu zer garen eta nola gauden kokatuta jakiteko, beti ere segurtasun fisikoa bermatuz. Beraz, ahal den neurrian naturaz baliatzea izango litzateke egokiena, muga batzuk jarritz. Gainera barne espazioetan naturako elementuak erabil daitezke, hala nola, buztina, hondarra, egurra, ura, etab. Zaintzari dagokionez, hezitzailearen betebeharrak izango da baina, haurrak pertsona bezala ikasi beharko du bere ongizate fisikoa eta psikikoa bermatzea, hau da, hotza-beroa, egarria edo mukiak dituen, komunera joan beharra duen, etab.
4. Ingurune soziala. Hezitzaile taldeak segurtasun afektiboa bermatu behar du baina irakaskuntza haur bakoitzarena izango da, norberak egin beharko du.
5. Jolasa. Haurrek ingurunea ulertzeko modua da. Jolas hauek guztiz libreak izango dira eta bertan manipulatu, bizi, esperimentatu egingo dute ingurunea eta baita sentimenduak.
6. Arlo akademikoak. Hauek ez dira alde batera uzten baizik eta irakasteko modua aldatzen da. Izan ere, haurrak bere gorputza, esperientzia, ongizate fisiko eta psikikoa barneratua izatean berez eskatuko du zerbait gehiago ikastea.
7. Norbera. Norberak berebiziko garrantzia du eta pertsona bakoitza da oinarria eta bere interesetatik abiatzen da ikaskuntza. Hau da, norberak ingurunea ezagutu behar du bere estilo, ahalmen eta baliabideen arabera. Beraz, haur bakoitzaren erritmoa eta interesak errespetatuko dira eta bakoitzari beharrezkoa dena eskainiko zaio.
8. Eskola bakoitzak bere idiosinkrazia du. Hau da, eskola bakoitza mundu bat da eta bakoitzak bere erantzun propioa izango du, eskola bakoitzak errealitate desberdinak dituelako.

Arestian aipatu den bezala, Mugimendu Autonomoa beste iturri batzuetatik edaten duen metodologia da. Hau da, Chokler, Pikler eta Malaguzzi metodologietako ideia batzuk barnean hartzen ditu. Beraz, garrantzitsua da hauek zertan datzan pixka bat azaltzea.

Chokler-ek (2010) aipatzen du, jarduera autonomoaz hitz egitea haurra ekintzarako subjektua dela onartzea dela. Bere hitzetan, haurraren motrizitatean edo bilaketa kognitiboan gidatzeak menpekotasuna indartzen du eta haurrak gai ez dela ikasten du. Gainera, modu honetan, helduak ez du subjektu autonomo bezala onartzen.

Pikler, aldiz, haurraren mugimendu autonomoan zentratzen da. Helduak Pikler-ek (1984) azaltzen duen bezala, haurrari zehazki laguntzea saihesteaz gain, ez du jarrera jakin batzuk hartzera behartzen. Nahiz eta haurrari zuzenean ez lagundu, helduak haurraren poza partekatzen du mugimendu berri bat menperatzea lortzen duenean. Gainera, Pikler-en (1984) ideia nagusia haurrak, mugimendu askearen bidez bere kabuz garatzeko gai dela sinestea da eta horretarako helduak baliabideak jarri behar ditu.

Reggio Emiliaren kasuan, hurrek egiten dutenari egiten ez dutenari baino garrantzia gehiago ematen zaio, hau da, garrantzia gehiago ematen zaio prozesuari eta ez emaitzari. Hurrek ume izateko denbora behar dute eta metodo honetan egiten den guztia zentzu batekin egiten da. Gainera, haurra izaki indibidual eta trebe gisa ulertzen da eta ikasteko berezko nahia duela defendatzen dute, baita ere, hurrek kanpoko munduarekiko harremanen bidez eraikitzen dutela beraien nortasuna (García, 2017). Honekin batera, Reggio Emilian, Vecchi-k (2013) aipatzen duen bezala, profesionalak behatu, ikertu, oharrak hartu, dokumentatu, hausnartu eta interpretatu egin behar dute.

## **2.2. Psikomotrizitatea**

### **2.2.1. Definizioa eta eboluzioa**

Psikomotrizitatearen inguruan hitz egiten hasteko, hura zer den argi azaltzea beharrezkoa da. Lehenik eta behin, psikomotrizitateak hezkuntzan duen garrantzia zein den jakiteko Haur Hezkuntzako dekretuak kompetentzia motorren inguruan esaten duena ezagutzea beharrezkoa da. Beraz, 237/2015 curriculum, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko kompetentzia motorra haurrak bere nortasun propioa eraikitzeko, gorputza ezagutzeko eta adierazteko erabiltzen duen tresna bezala definitzen du. Gainera, kompetentzia motorren bitartez, gorputz-egitura osatu, denbora-errealitatean kokatu eta kanpoko munduaz jabetzen hasten da. Aipatzekoa da, kanpo munduak haurrengan duen

eraginaren garrantzia azpimarratzea, izan ere, honek haurrei adierazteko aukera ematen die, eta horretarako, keinuak, aurpegierak, mugimenduak, gorputz-jarrerak, ukimena eta antzeko baliabideak erabiltzen dituzte. Hauen bitartez, haurrak ideiak eta emozioak adierazten ditu eta gainontzekoen adierazpenak interpretatzen ikasten dute.

Baina, nola sortu zen psikomotrizitatea? Mendaras-ek eta Gil-ek (2016) aipatzen dute XX. mendean Ernest Dupré, mediku frantsesak, gaixotasun mentalak zituzten pertsonen ahultasun motorra aztertzean psikomotrizitate terminoa sortu zuela. Beraz, esan daiteke, psikomotrizitate hitzaren lehen irudia zailtasun motorrekin lotuta dagoela eta mugimenduaren eta psikismoaren arteko erlazioen bitartez berriz hezi daitekeen ideian zentratzen dela. Dupré-ren ideia hauekin bat datozen zenbait autore daude, hala nola, Ajuriaguerrak psikomotrizitatearen printzipioak eta oinarriak finkatu ditu eta Wallon-ek, aldiz, haurrak nortasuna garatzeko beharrezkoa duen elementua gorputz eskema dela aipatzen du.

Autore eta iturri asko dira psikomotrizitatea definitzen dutenak, izan ere, psikomotrizitatearen mundua zabala da. Hasteko, Berruezo-k (2008) azaltzen du De Lièvre y Staes-ek (1992) psikomotrizitate kontzeptua pertsonaren ikuspegi global bezala hartzen zuela. Honetaz gain, kanpoko munduaren eta gizakiaren arteko elkarrekintzak hautematen dituen begirada globalizatua dela azaltzen zuen. Laburbilduz, hezkuntza praktika bat da non jarduerak pertsona bakoitzari bere izaera eta hurbileko ingurunea ezagutzeko aukera ematen duen.

Bestetik, Euskaltzaindiak (2022) honela jasotzen du psikomotrizitatearen definizioa “jarduera psikikoen eta gorputz mugimenduen arteko lotura eta harremana”. Gainera, Urrestik (2017) esaten du psikomotrizitateak jolas librean duela oinarria eta bere helburu nagusia haurrek ondo pasatzea dela. Horrekin batera, aipatzen du helduon eginkizuna haurrei jolasgune libre eta seguru bat eskaintzea izango dela, haurrak nahi duen jolasean ibiltzeko. Horrela, haurrak, libreki jolasten duten bitartean garapen afektibo, emozional, kognitibo, motor, sozial eta morala garatzen ari dira. Gainera, harremanak bermatzeko aukera eskaintzen du (Urresti, 2017).

Arnaiz, Rabadán eta Vives-ek (2008) aipatzen dute, psikomotrizitatearen ardatza haurra ezagutzea dela, bere jarduera motorretik abiatuta. Beñaran (2017) eta



Aucouturier (2004) ideia honekin bat datoz eta funtsean, haurra eta bere garapena ulertzeko modu bat dela azpimarratzen dute.

Aucouturier-ek (2004) esaten du psikomotrizitate kontzeptua garapen psikologikoaren eremuari dagokiola eta gizakiaren garapenaren konplexutasuna ebidentzian jartzen du. Psikomotrizitateak, haurrak bere kabuz, mugimenduaren bidez, adierazten duen guztia ulertzeko aukera eskaintzen du. Gainera praktika psikomotor hezitzaile eta prebentiboa bereizten du. Hezkuntzan eta prebentzioan oinarritutako praktika bat da haurraren jolas jarduerekin bat doana. Praktika mota hau 0-6 urte bitarteko haurrekin egitea da egokiena, baina garapen psikologikoan zailtasunen bat duten haurrekin aurrerago ere egin daiteke (Aucouturier, 2004).

Mendiaras-ek (2008) hezkuntza psikomotrizitatea, hezkuntza ulertzeko era bat bezala definitzen du non haurraren globaltasun osoa lortzea eta kanpoko munduarekiko harremanak erraztea duen helburu. Franch-ek (2018) aipatzen duen bezala, psikomotrizitatea, hezkuntzaren esparruan, haurraren garapen psikomotorra bultzatzea helburu duen ekintza bat da. Horretarako haurrari ibilbide ebolutibo batean lagundu behar zaio, non ekintzatik pentsamendura, keinutik hitzera igarotzen den eta besteekin espazio eta denbora partekatzen dutela esploratzen duten.

Gaur egun psikomotrizitateak hezkuntzan toki garrantzitsu bat duen arren, ez zaio behar duen besteko garrantzia ematen. Izan ere, ezagutza kognitiboari garrantzia handiagoa ematen zaio eta haurrak duen lehen ezagutza ez da kognitiboa, korporala baizik. Gainera, mundu arrazional batean bizi gara non haurrak lehen bai lehen heldu bilakatzea bilatzen den (Aucouturier, 2004).

### **2.2.2. Korronteak**

Psikomotrizitatean, Mendiaras-ek (2008) bi norabide desberdintzen ditu, alde batetik, psikopedagogikoa eta bestetik bizipenezkoa.

Norabide psikopedagogikoan bi korronte desberdintzen dira. Alde batetik, Mendiaras eta Gil (2016) Le Boulch-en metodo psikozenetikoa eta Picq y Vayer-en metodoa. Angel et al. (2007) aipatzen dute, autore bi hauen hezkuntza psikomotorra ekintza pedagogiko eta psikologikoa dela eta haurraren portaera hobetzeko gorputz hezkuntza tresna egokia dela.

Bizipenezko norabidean, Lapierre eta Aucouturier autoreak aurkitzen dira. Mendiarras-ek (2008) azaltzen duenez, bizipena da lehena, esperientziak dira arrazoia elikatzen dutenak eta ez alderantziz. Haurrek esperientzia ugari izateak pentsamendua, adimena, sormena, erantzukizuna eta autonomia, hau da; azken finean, hazkunde pertsonala garatzea ahalbidetzen du. Vallés-ek (2013) esaten duen bezala, haurraren segurtasun afektiboa eta ongizatea besteekin, hala nola, familia, eskola eta ingurua, nola erlazionatzen den araberakoa izango da. Hau da, besteekiko harreman horiek atseginez bizitzeko aukerak emango dio segurtasun emozionala.

Nahiz eta hasieran Lapierrek eta Aucouturierrek elkarrekin lan egin, ondoren, banandu egin ziren. Lapierre-k Psikomotrizitate Erlazionalean (El adulto frente al niño) jartzen du arreta eta gorputza erabiltzen du parte hartzaileen arteko harremanen bitartekari bezala. Aldiz, Aucouturier-ek Praktika Psikomotorrean (Los fantasmas de acción y la práctica psicomotriz) jartzen du arreta eta hau da eskola gehienek aurrera eramaten duten metodologia, gaur egun. Praktika psikomotorraren helburua, haurraren garapen harmonikoan eta integralean laguntzea da, gaitasun motor, intelektual, afektibo sozialak kontuan izanik (Mendiarras eta Gil, 2016).

### **2.2.3. Aucouturierren Praktika Psikomotorra**

Bernard Aucouturier-ek sortutako Praktika Psikomotorra mugimenduaren bidez haurraren heltze psikologikoa lortzea helburutzat duen metodoa da, baina zer da heltze psikologikoa? Mugitzeko, jolasteko eta harremantzeko plazerretik pentsatzeko plazerra igarotzen den prozesua da (Aucouturier, 2004). Haurrak bere ekintzetatik, sentimenduetatik eta emozioetatik abiatuta irudikapen kontziente eta inkontzienteak garatzeko prozesua da, hain zuzen ere.

Aucouturier-ek (2018) aipatzen du, praktika psikomotorra bat-bateko jolasean oinarritzen dela eta jolas mota horrek helburu batzuk izan behar dituela. Baita ere, psikomotrizistaren jarrera hurrei garapen prozesuan laguntzeko egokia izan behar da. Gainera, praktika honek haurra erdigunean kokatzen du.

Izendapenak berak esaten duen bezala, ez da teoria bat, praktika bat baizik. Aucouturier konturatu zen, zenbait hurrekin lan egin ondoren, ekintza motorrean gorputzarenak edo mekanika motorrarenak soilik ez ziren beste faktore batzuk zeudela (Beñaran, 2017).

Arnaiz-ek (2000) praktika psikomotorra osatzen duten ekintza printzipioak zeintzuk diren azaltzen du. Hala nola, ekoizpen toniko-emozionalak eustea, haurrari pentsamenduak izaten laguntzea, haurrari emozioak ikertzen laguntzea eta haurrari bere emozioetatik aldentzen laguntzea.

Aucouturier-ek (2004) psikomotrizitate saio batean sei fase desberdintzen ditu. Saioarekin hasi baino lehen haurrek, zapatilak kentzen dituzte eta arropa eroso jartzen dute.

Hasteko, *sarrera errituala* daukagu. Bertan, haurrak bankuan esertzen dira, ahal den neurrian, ispilu baten aurrean elkar ikusteko. Jarraian, etorri ez direnen izenak aipatzen dira galeraren garrantzia azpimarratzeko. Gainera, hurrei gogorarazten zaie psikomotrizistek gela beraietzat prestatu dutela eta beraiak bertan daudela jolasteko. Ostean, araua gogoratzen zaie “zaindu zure burua, zaindu besteak”. Saioaren bi zatiak gogoratzen dira eta espazioz aldatu dezaketeela gogoratzen zaie behin istorioa entzunda. Sarrera erritualarekin bukatzeko, aurreko saioa gogoratzen da.

Bigarrenik, *adierazkortasun motorraren faseari* ematen zaio hasiera. Horretarako, harresia botatzen dute haurrek. Harresi hau behin baino gehiagotan eraiki eta bota daiteke. Ondoren haurrak libreki jolastuko dute eta batik bat ondorengo jolasak emango dira; etxetxoa egitea, eraiki eta apurtu, jolas auresinbolikoak (apurtu, ezkutatu...), jolas sinbolikoak (rol jolasak...).

Jarraitzeko, *ipuinen fasea* daukagu. Honetan, bi elementu nagusitzen dira. Alde batetik beldurra, gehiegizkoa izan gabe eta bestetik, heroia. Haurrak pertsonai honekin identifikatuko dira. Ipuina kontatzeko aurretiz prestatua izan behar da eta emozioak egotea garrantzitsua da. Ipuinen helburua deszentrazioa da. Aucouturier-en esanetan “deszentrazioa kanpoko munduaren eta norbanakoaren arteko distantzia jakin bat hartzeko gaitasuna da” (Aucouturier, 2004).

Hurrengo fasea *adierazkortasun plastikoko fasea* da. Fase honetan aurkitzen diren baliabideak marrazkiak eta eraikuntza txikiak dira. Baliabide hauek sinbolizazio maila honek eskatzen duen kompetentziara iristeko aukera ematen dute, baita deszentrazioa lortzeko ere.

Saioari bukaera emateko, *irteera erritual*a egiten da. Irteera errituala aldakorra izan daiteke hauraren adinaren arabera: denek ezagutzen duten abesti bat abestu daiteke, hiru urtetik beherakoekin horrek segurtasuna ematen duelako eta irteera kolektiboa ahalbidetzen duelako. Hiru urtetik gorakoekin, taldean bildu daitezke eta haurrak banaka agurtu beraien izen abizenak esanez.

#### **2.2.4. Psikomotrizistaren papera APP**

Franch-ek (2018) aipatzen du psikomotrizitatean lan egitea konplexua dela ezagutza teoriko jakin batzuk eta teknika desberdinak menderatzea eskatzen baitu. Gainera, psikomotrizistaren gaitasuna funtsezko elementua da hauraren ekintza ez gidatzeko (Aucouturier, 2018).

Aucouturier-ek (2004) argitzen du psikomotrizistak, bere proposamen, orientazio eta hitzezko zein hitzik gabeko komunikazioaren bitartez, hauraren sinbolizazioaren garapenean laguntzeko eginkizuna duela. Honekin batera, aipatzen du, psikomotrizistaren begirada periferikoa izan behar dela hauraren segurtasuna bermatzeko.

Arnaiz, Rabadán eta Vives-ek (2008) psikomotrizistak izan beharreko bost ezaugarri desberdin zehaztu zituzten, hala nola, entzutea, autoritatea, enpatia, hizkuntza eta disimetria eta kontrastea aurkitzen dira.

*Entzuteari* dagokionez, ez da soilik hitza entzun behar, gorputza ere entzun behar da. Umeari entzuteak, saioaren momenturen batean, tonikoki ukitzeko eta egokitzeko aukera ematen du. Gainera, oso argi izan behar da helduak ezin duela bere desioa haurarengan proiektatu.

*Autoritatea* hurrei garatzen laguntzeko baliagarria da. Hezitzaileak mugak jartzen ditu, hau da, segurtasun fisikoa eta afektiboa egiteko neurriak hartuko ditu. Izan ere, oso garrantzitsua da haurrak fisikoki seguru sentitzea eta, era berean, haien ekoizpena errespetatzea.

*Enpatia* besteren sentimenduak ulertzeko gaitasuna da. Heldua bere nortasunean mantenduz, beste pertsonari laguntzea da, bere sentimenduetatik abiatuz.

*Hizkuntza* haurra errealitatean kokatuko duen hizkuntza erabiliko da. Psikomotrizistak erabiliko duen hizkuntzak ez du ebaluatuko. Gainera, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa bat etorri behar dira. Hizkuntza baikorra eta deskribatzailea erabiltzea komeni da.

*Disimetria* eta *kontrastea* helduak erabiltzen duen entzuteko beste modu bat da eta haurra eta helduaren rola definitzen ditu. Lehenengo saioetan imitazioa erabili daiteke hurrekiko harremana ezartzeko, baina, ondoren, hezitzaileak, rol, erantzukizun eta erlazio desberdina dagoela erakutsi behar du.

### 3. Metodologia

Atal honetan, ikerketa burutzeko erabili den metodologia mota eta hura aurrera eramateko baliatutako prozesua zein izan den azalduko da. Horrekin batera, datuen bilketa nola egin den eta bertan parte hartzen duten irakasleen ezaugarriak ere azalduko dira.

Mugimendu Autonomoaren eta psikomotrizitatearen arteko loturak eta korapiloak izan dira ikerlan honen ardatza eta metodologia aldaketa horrek psikomotrizitate arloan eraginik ez izatearen arrazoia aztertu da. Ikerketa hau aurrera eramateko erabili den metodologia kualitatiboa izan da, lan honen helburu nagusia Mugimendu Autonomia aurrera eramaten duten lau eskolen errealitatea jasotzea, psikomotrizitatean aldaketarik ez ezartzearen arrazoia ezagutzea eta pedagogia honen oinarriak errealitatearekin alderatzea izan da. Taylor-ek eta Bogdan-ek (1987) azaltzen duten bezala, metodologia kualitatiboak datu deskribatzaileak sortzen dituen ikerketari egiten dio erreferentzia, hau da, pertsonak esaten dituzten hitzak berak jasotzen dira. Halaber, Anguera-k (1986) gertaera, portaera edo egoera baten testuinguruaren deskribapenean oinarritu eta objetibotasun handiena ziurtatzeko helburua duen ikerketa estrategia bezala definitzen du.

Ikerketa hau aurrera eramateko asmoz, datuak jasotzeko erabilitako teknika elkarrizketa sakona izan zen. Izan ere, Cicourel-en (1982) ustez, elkarrizketa sakonak ezezagunen mundu pribatu eta pertsonalean sartzea da, haien eguneroko bizitzari buruzko informazioa lortzeko asmoz. Gainera, elkarrizketa mota honetan ez dago galdera erantzun formalik, gai orokorren inguruko gidoi bat planteatzen da eta hura

jorratzen da. Zentzu horretan, sormenak uneoro presente egon behar du eta galdera zuzenak eta itxiak egitea saihestu behar dira (Robles, 2011). Elkarrizketa hauek erdiegituratuak izan ziren, Ozonaz eta Perez-ek (2004) aipatzen duten bezala, parte hartzaileak ez zapaltzea eta komunikazioa erraztuko duen giro aproposa sortzea garrantzitsua da (Diaz Martinez, 2004). Teknika hau erabiltzea erabakitzearen arrazoi nagusia Mugimendu Autonomoaren errealitatea gertutik ezagutzen duten Haur Hezkuntzako irakasleak elkarrizketatu nahi zirela izan zen.

Parte hartzaileei dagokionez, Mugimendu Autonomoan oinarrituta dauden bost eskola desberdin bilatu ondoren, beraiekin email bidez, lanaren nondik norakoen berri eman eta elkarrizketak egiteko prest zeuden galdetu zen. Eskola batzuen erantzunak ez jasotzearen ondorioz, azkenean, Haizeder, Zaldupe, La Baluga eta Otxandioko eskoletako Haur Hezkuntzako irakasle bana izan ziren elkarrizketatuak. Horrez gain, Berritzeguneko Mugimendu Autonomoaren arduraduna, ere elkarrizketatu zen. Gainera, lan honetan parte hartzeko bi baldintza bete behar zituzten: Mugimendu Autonomoan oinarritzen zen zentroa izatea eta Haur Hezkuntzako irakaslea izatea.

Ikerlanaren muga handiena elkarrizketak burutzeko tokia eta ordua finkatzea izan zen, izan ere, aurrez aurre egiteko Covid-19 zela medio eta ondorioz, 5etik 4 online egin ziren eta bat aurrez-aurre. Elkarrizketa hauekin hasi baino lehen, elkarrizketatuei email bidez, informazio guztia bidali zen eta ikerketan parte hartzeko baimen informatua (ikus 1.eranskina) sinatu ondoren, elkarrizketa grabatu zen. Gero, lkarizketa hauen bitartez jasotako datuak anonimoak izango zirela eta lan hau aurrera eramateko soilik erabiliko zirela aipatu zen. Elkarrizketa hauen iraupena 30-40 minutukoa izan zen. Bertan jasotako datuak Mugimendu Autonomoaren eta psikomotrizitatearen inguruko informazioa izan da.

Informazio gehiago lortzeko asmoz, elkarrizketatzailearen parte hartzea txikia izan zen eta elkarrizketatuak hitz egiteko askatasun osoa izan zuen. Horretarako, ikertzaileak, aurretiz prestatu zuen gidoi bat erabili zuen (ikus 2.eranskina) eta gidoiarekin hasteko hurbilketa galdera batzuk azaltzen ziren. Ondoren Mugimendu Autonomoaren eta Psikomotrizitatearen inguruko galderak planteatzen ziren. Galdera horiek irekiak ziren eta elkarrizketatuek erantzun zabalak emateko aukera zuten.

Elkarrizketzaileak inongo epaiketarik egin gabe, galderak egiteari ekin zion eta uneoro interesa erakutsiz elkarrizketatuak ahalik eta informazio gehien ematea ahalbidetu zuen. Behin elkarrizketak transkribatuak izan, analisia egiteari ekin zitzaion. Taylor eta Bogdan-ek (1987) analisi prozesuan hiru etapa desberdintzen dituzte. Lehenengo etapan, hau da, deskubritze aldian, transkripzioak egin ondoren hauek behin eta berriz irakurri eta errepikatzen diren gaiak eta kontzeptuak identifikatu ziren. Bigarren etapan, datuen kodifikazioa eta aztergaiaren ulermena findu ziren. Horretarako, bi gai nagusi aukeratu ziren: Mugimendu Autonomoaren nondik norakoak eta horren ekarpena psikomotrizitatean. Ikertzaileak bildutako datuak testuinguru egokian ulertu zituen, ideien arteko loturak ezarriz eta beharrezkoa zen esanahia emanaz. Bukatzeko, egindako elkarrizketak transkribatu (ikus 3.eranskina) ziren emaitzak eta eztabaidari ekiteko.

#### **4. Emaitzak**

Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako etapan pedagogia berri bat ezartzen hasi dira, Mugimendu Autonomoa izenekoa eta ikerketa honen oinarria Mugimendu Autonomoa ezartzean psikomotrizitatean inolako aldaketarik eragin ez izanaren arrazoiaren bilaketa izan da. Elkarrizketatuek azaldu dutenez, Mugimendu Autonomoan murgiltzeak hobekuntza ikaragarriak ekarri ditu. Era berean, eskolan Mugimendu Autonomoa ezartzean eginbeharreko aldaketak potente xamarrek izan direla, eta hasieran, pixka bat galduta sentitu izan zirela aitortu dute. Azken batean, elkarrizketatuek bi gai nagusi nabarmendu zituzten: Mugimendu Autonomoaren oinarriak eta Psikomotrizitatearen garrantzia.

Honekin batera, aipatzekoa da, Mugimendu Autonomoaren inguruko oinarri teoriko gutxi dagoela jasota eta hortaz, elkarrizketa hauen bitartez oinarri horiek jaso nahi izan direla. Hau da webgune bat iturri izatearen arrazoia. Gainera, Mugimendu Autonomoan murgilduta dauden 110 eskolek, hilean behin juntadizoak egiten dituzte eskola bakoitzaren esku-hartzeen inguruko informazioa elkarbanatzeko asmoz.

#### 4.1 Mugimendu Autonomoaren oinarriak

Lau irakasleek eta Berritzeguneko aholkulari nagusiak Mugimendu Autonomia haurraren garapen osoa eta orekatua lortzen laguntzeko modu bat bezala definitu zuten elkarrizketetan. Otxandioko irakaslearen hitzetan:

Lan egiteko modu bat da, moldagarria eskola bakoitzaren errealitatera. Zertan datza? Haurrari espazio eta material ezberdinak eskeintzen dizkiogu (barne zein kanpo) non, bere kabuz, bere nahi eta beharren arabera mugituko den hezitzailea bidelagun duelarik eta horrela jolasa ardatz bere ikaskuntzak garatuko dituen guk emandako aukeren artean bere beharretatik abiatuta eta ez frustrazioetan oinarritutako ikaskuntzetan (Otxandioko irakaslea).

Haizederreko irakasleak esaten duen moduan, Mugimendu Autonomoak haurrari izugarrizko askatasuna ematen dio eta funtsezkoa da haurrak zerbait egitera ez behartzea. Izan ere, azken finean, haur guztiak helduko dira garapen maila berdinerara, batzuk lehenago eta beste batzuk beranduago, bakoitzaren erritmoaren arabera:

Haurrak horrela, askatasun bat dauka, zergatik behartu haur bat gauza bat egitera momentu horretan ez baldin badago prest? Azkenean, haurrak berez hasten dira eskatzen, irakurtzen eta hori gurasoak ere esaten digute, nire haurra hasi da kartelak irakurtzen ba guk probokazioak sortuko ditugu (Haizederreko irakaslea).

Gainera, haurrek Mugimendu Autonomoan duten garapena barrutik kanporakoa da, Berritzeguneko aholkulari nagusiak esaten duen bezala:

Barrutik kanporakoa, orain arte egin duguna da estimulazioa. Estimulatu kanpotik, ta bueno, ez dago txarto baina guk benetan nahi baldin baditugu, ez dakit, indibiduo konpetenteak (bihurtu beharrean) inutil batzuk bihurtzen ditugu horrela (Berritzeguneko aholkularia).

Mugimendu Autonomoak estimulazio horrekin puskatu du eta haurrak bere desio eta nahietatik abiatuz bere intereseakoak diren ekimenak produzitzera gonbidatzen du, azken finean, haurra iritzia duen norbait da. Honen bitartez, La Balugako irakasleak azaltzen duen legez: “planteamendu hau askoz ere zabalagoa da eta ez duzu umeen adina hainbeste kontuan izaten baizik eta beraien garapen kognitibo eta emozionala.”

Ondorioz, goian aipatu den bezala, begirada aldaketa hori ematen da, hau da, begirada umearen garapen mailan jarri behar da. Honen bitartez, Haizeder eskolako irakasleak aitortzen du: “haurrak hobeto ezagutzea lortzen da eta gainera, zein momentutan (ebolutiboan) dagoen ikusten da.”



Guzti honekin azaltzen da metodologia honetako ardatza haurra dela eta bera, bere interesen eta beharren arabera garatzen joango dela, bakoitza bere erritmoan eta erritmo hori errespetatzea funtsezkoa da. Gainera, azaldu dutenez, metodologia honek gauza asko eskaintzen dituen arren, lan handia, inplikazio eta dedikazio maila altua eskatzen duen metodologia da.

Zu kokatzen bazara hau dirua ateratzeko lan bat balitz bezala, Mugimendu Autonomoa zuretzat oso zaila izango da barneratzea, zeren eskatzen du benetan inplikazio bat. Zu bazoaz, bokazioz eta lanbide bezala Haur Hezkuntzara eta Mugimendu Autonomoan aritzen bazara, gozamen absolutu bat da, baina orduak sartu behar dira (Berritzeguneko aholkulari nagusia).

Honekin, azpimarratzen du, azken finean, Haur Hezkuntzan bokazioz aritzean benetan lanaz gozatzen dela, nahiz eta metodologia honek hezitzaileen lan maila altua eskatu. Azken finean, Haur Hezkuntzan haurren ongizatea bermatzea da garrantzitsua eta hezitzaileok hori lortzeko lan egin behar dugula aipatzen dute elkarriketatuek.

Momentu guztietan behaketa bat egiten egotea eta klaro gero behaketa hori eboluzio bat egin behar da beste irakasleekin, ze klaro ekosistema desberdinetatik dabiltzalez informazioa irakasle askok dute eta hori konpartitu egin behar da. Irakasleen arteko koordinazio bat ikasleen behaketa egiten dugunean (Zaldupeko irakaslea).

Egia da lana dela askoz ere gehiago, ze azkenean igual ohiko geletan zuk dituzu lau gauzatxo eta Mugimendu Autonomoak eskatzen dizu ia aldaketa hori, zuk ez daukazula gela baten tutorizazioa. Bazik eta haur guztiak direla danonak, orduan behaketa egin behar duzu 3-4-5 urtekoena edo klaustro mailan adostua izan behar du (La Balugako irakaslea).

Beraz, irakasle guztien arteko koordinazio bat funtsezkoa da Mugimendu Autonomoan. Gainera, haur bakar bat irakasle guztiek behatu eta ebaluatuko dute. Ondoren, ebaluatutako hori amankomunean jarriko dute eta tutorearen lana izango da haur horren gurasoekin bilerak egitea.

Mugimendu Autonomoaren ildoan atalari bukaera emateko asmoz, lau irakasleek eta baita Berritzeguneko aholkulariak aitortu zidaten pedagogia hau ezartzean espazioa erabat aldatu behar zela: “aldaketa nagusia espazioa izan zen, izan ere honek berebiziko garrantzia du hirugarren hezitzailea delako” (Haizederreko irakaslea).

Mugimendu autonomia egiteko HH guztia beheko solairuan egon behar zen. Orain dela 4 urte ez genituen horrela (gelak). Espazioak ireki, altzairuak haurren tamainara egokitu, paretetatik orri, marrazki eta txintxiringailuak kendu

eta jarriz gero haurren neurrira, espazioetarako arauak, hezitzaileen papera koreografiatu, behatu haurrak zer behar duen hori eskeintzeko eta guneak sortzeko. Eta froga pilo bat, eta jarri eta kendu eta berriro beste momentu batzuetan frogatu. Haur talde guztiak, beharrak, interesguneak, nahiak, ez dira berdinak (Otxandioko irakaslea).

Gainera, Zaldupe eskolako irakaslearen eskutik, espazio aldaketen nondik norakoak jaso ziren:

Dena, gelak dira totalmente desberdinak, mobiliario aldetik. Lehen genituen armairu handiak, gehiena haurren altueran jarri da, gero kolore neutroak. Lehen mahai asko zeuden eta orain igual dago mahaitxo bat gelako. Aldaketa izugarriak. Orain material naturala, egurrezkoak, errealak izaten saiatzen gara eta plastikoa kendu. Ez dirudi eskola berdina denik. Beste goxotasun bat dago gelan, txukuntasuna (Zaldupeko irakaslea).

Ondorioz, aldaketa hauekin hasteko lehendabizi bilera eta hausnarketa asko egitea beharrezkoa da. Gainera, hezitzaile taldeak aldaketa hau egiteko eta beharrezkoak diren formakuntza guztiak jasotzeko prestutasuna adieraztea beharrezkoa da. Gainera, espazio eraldaketari dagokionez, garrantzitsua da aipatzea, gelako material guztiak haurren altuerara egokituak izan behar direla haurren autonomia sustatzeko.

#### **4.2. Psikomotrizitatea, Mugimendu Autonomoaren aurretiko askatasun (g)unea**

Mugimendu Autonomoa ezartzean aldaketa nabarmenak eman ziren eskola osoan zehar, psikomotrizitate gelan izan ezik. Ideia hau begi bistakoa da eta elkarrizketatutako irakasle guztiak bat datoz hori horrela izan dela aitortzean. Haizeder eskolako irakasleak aipatu zidan beste arlo batzuetan zentratu zirela, beharra zegoela ohartu zirelako eta psikomotrizitatean iada lortuta zegoela uste zutelako.

Bai, bueno, azkenean ikusten genuen aldaketa gitxien behar zuen espazioa zela eta egia da beste ekosistemetara gehiago zuzendu garela. Arte, zientzia... ez dut gezurrik esango, horrela da. Uste genuen psikomotrizitatea iada lortutako puntu bat zela (Haizederreko irakaslea).

Mugimendu Autonomoan ekosistemen antolamendua guztiz desberdina da psikomotrizitatearen antolamenduarekin alderatuz. Nahiz eta gaur egun bizitzen ari garen osasun egoerak (Covid-19) zenbait aldaketa ezartzea eragin eta Mugimendu Autonomoa bere osotasunean bermatzea ekidin, lau eskolek antolamendu berdina jarraitzen dute. Adibidez, Zaldupeko irakasleak esan zidan, 2-3 urtekoak eta 4-5 urtekoak nahasten zituztela ekosistemetan.

2 urteko gela, eta 3-4-5 urteko gelan desberdina da, maila guztietan desberdina da eta momentu honetan, pandemia honekin, desberdina da, ez da mugimendu autonomoa hasieran zen bezala. Ez digute gelak nahasten uzten, umeak ezin dira nahastu. 2-3 eta 4-5 urte bai nahasten ditugu. Bueno, haur bat sartzen da gelan eta gero berak erabakitzen du nora nahi duen joan, bere esku dago (Zaldupeko irakaslea).

Baina, zer gertatzen da psikomotrizitatearen kasuan? Elkarrizketatuko lau eskoletako irakasleek azaldu zidaten psikomotrizitate saioa ez zutela beste ekosistema bat bezala planteatzen. La Balugako irakasleak aitortu zidan psikomotrizitateak Haur Hezkuntzako etapan izugarritzko garrantzia duela eta ondorioz, ez da ekosistema bat bezala planteatzen.

Guk ez daukagu psikomotrizitate saioa Mugimendu Autonomoaren barnean sartuta, hau da, ekosistema bezala planteatuta. Iruditzen zaigu, Haur Hezkuntzako etapan psikomotrizitateak daukala pisu handia eta eskaini behar zaizkiola saio bereziak hori lantzeko (La Balugako irakaslea).

Berritzeguneko aholkulariak psikomotrizitateak duen garrantzia azpimarratzeaz gain honetan aldaketarik ez ezartzearen arrazoa ematen du. Izan ere, goian aipatu dudana bezala, ekosistemetan haurrak adinka nahasturik ibiltzen dira, aldiz, psikomotrizitatera ez dira nahasturik joaten. Hau da, ekosistemetan 2-3 eta 4-5 urtekoak nahasturik dabilta, baina psikomotrizitatean, adinka (2 urtekoak, 3 urtekoak, 4 urtekoak eta 5 urtekoak) joaten dira.

Ez dogu egin eta nahita ez dogu egin. Zergatik? Ba taldekide bezala iruditzen jakulako taldea taldea dela eta psikomotrizitatea sakratua dela. Psikomotrizitatea ulertuta talde kohesio eta talde horretan indibiduo bakoitzak daukan garapenarekin ulertuta, psiko psiko bezala utzi, sakratu bezala. Hau oso taldekoa da eta orduan hau ez dugu ikutuko (Berritzeguneko aholkularia).

Guzti honekin batera, Zaldupeko irakasleak aitortzen du psikomotrizitatearen eta Mugimendu Autonomoaren arteko gakoa haurra protagonista sentitzea dela.

Psikomotrizitatean haurra zen erdigunea eta gelara bueltatzean ez zen erdigunea, orain hau ez da gertatzen. Psikomotrizitatean erdigunea da eta ekosisteman ere erdigunea da (Zaldupeko irakaslea).

Psikomotrizitateak eta Mugimendu Autonomoak baditu nolabaiteko lotura eta desberdintasunak, nabarmenak direnak. Adibidez, Otxandioko irakasleak aurrera eramateko pausuak berdina direla aitortu zidan: “modua, saioaren ibilbidea berdintsua da: proiektzioa, jolasa, itxiera.” Aldiz, Berritzeguneko aholkulariak zenbait lotura edo harreman desberdin aipatu zituen:

Loturia, ba esango nuke haurra ikusteko begirada horretan. Bere ahalmenak, bere bizipenak, barrutik kanporako ibilbide horretan. Hor antzekotasun handi handia dute edo berdina dira, ez? Ba arauak, mugak. Nik esango nuke, esentzia berdina daukiela. Bakarrik psikomotrizitate saio bat psikomotrizitateko saio bat da eta hor ikusten dituzun gauzak gero ekosistematan ere ikusi ahal izango dira baina bada espezifikoa, badauka beste begirada bat, beste fintze bat dauka psikomotrizitate saio batek (Berritzeguneko aholkularia).

Goiko erreferentzia kontuan hartuz, Bizipenezko korrontean, Mugimendu Autonomoan gertatzen den bezala, haurraren garapena barrutik kanporakoa da. Hau da, bere interesetatik abiatuz, bere desio eta beharrak asetzen ditu, nahi duena egiten, nahi duenarekin jolasten, nahi duen denboraz. Hemen ere, arau gutxi batzuk daude, bizikidetzara arauak, alegia. Psikomotrizitatea eta Mugimendu Autonomia berdina direla dirudien arren, badituzte nolabaiteko desberdintasunak, hala nola, Berritzeguneko aholkulariak aipatu zidan bezala, psikomotrizitatean haurraren garapen fase batzuk behatzen dira eta aldiz, ekosistematan beste batzuk.

Psikomotrizaritate saio batean gauza batzuk ikusten dira eta ekosistematan beste batzuk eta hauek euren artien bat egin behar dute informazio gehiago ateratzeko. Psikomotrizitate taldekoak doalez, talde horretan nola konportatzen dan ikusi daiteke eta igual ekosistematan, ez da hain nabarmen (Berritzeguneko aholkularia).

## 5. Eztabaida

Mugimendu Autonomoaren inguruko teoria benetako errealitatearekin nola uztartzen den eta psikomotrizitate saioei nolako garrantzia ematen zaien alderatzea izan da gakoa. Emaitzek adierazi dute, metodologia honek psikomotrizitatearekin lotura estua duela. Izan ere, bai Mugimendu Autonomoan, bai psikomotrizitate saioetan haurra erdigunea da eta bere desioak eta beharrak asetzeko aukera eskaintzen zaio (Aucouturier, 2004).

Gainera, emaitzetan azaltzen da haurra ebaluatzean garrantzitsua dela izandako eboluzioan arreta jartzea eta honekin bat dator (García, 2017) Reggio Emilia metodoak ibilbideari emaitzari baino garrantzia handiagoa eman behar zaiola defendatzen du. Hezitzailearen eginkizunarekin jarraiki, emaitzetan ikus daiteke hezitzailea haurraren bidelaguna izan behar dela uneoro eta beharrezkoa den laguntza eskaini behar diola, betiere haurrak eskatzen duen momentuan. Ideia honek autore askotan du oinarria,

besteak beste Pikler-en (1984) metodoan, izan ere, helduak haurrarentzat espazio seguru bat, arriskurik gabekoa eskaini behar duela defendatzen du. Baita ere, Mugimendu Autonomoan, nahiz eta haur denak denonak izan, garrantzitsua da adin bakoitzeko erreferentziatzeko hezitzaile bat izatea eta Piklerrek ideia hori indartzen du lotura afektiboetan arreta jarritz (García, 2017).

Psikomotrizitatearen eta Mugimendu Autonomoaren arteko antzekotasun eta loturen artean ere aritu dira elkarrizketatuak. Aucouturier-ek (2004) aipatzen duen bezala, haurrak mugimenduaren bidez heltze psikologikoaren garapena lortzen du eta Psikomotrizitatean eta baita Mugimendu Autonomoan, aipatutako mugimendu hori nabarmentzen da. Gainera, Aucouturier-ek (2004) baieztatu zuen mugimenduaren bitartez, arlo motorrenak ez ziren bestelako arloak lantzen zirela. Honez gain, bi metodoetan, haurrak bizikidetzara arau gutxi batzuk ditu eta gainontzekoa, bere desio eta interesetatik abiatuta bideratzeko aukera du. Hau da, haurra erdigunean kokatzen da (Aucouturier, 2018) eta hori da gakoa.

Psikomotrizitateak, gaur egun, hezkuntzan toki garrantzitsu bat duen arren, ez zaio benetan duen garrantzia ematen. Hau da, ezagutza kognitiboari garrantzia gehiago ematen zaio baina haurrak duen lehen ezagutza korporala da. Elkarrizketatuko guztiak bat datoz ideia honekin eta aipatzen dute eskolak ez duela erantzuten haurren mugimendurako nahiari. Gainera, psikomotrizitatea Mugimendu Autonomoan murgilduz gero, hau da, ekosistema bezala planteatuz gero, bere garrantzia galduko lukeelaren ideian zentratzen dira. Izan ere, Aucouturier-en Praktika Psikomotorra iada egituratuta dagoen praktika bat da eta saioak orden bat jarraitzen du. Aucouturier-ek (2004) zehazten duen bezala, sarrera errituala, adierazkortasun motorren fasea, ipuinaren fasea, adierazkortasun plastikoaren fasea eta irteera errituala aurki daitezke. Beraz, honetan aldaketaren bat ezarriz gero, praktika honekin lortzen den heltze psikologiko hori, mugimenduaren bitartez ez litzateke landuko. Hau da, Aucouturierren “placer de hacer” “placer de pensar” ibilbidea puskatuko litzateke.

Bukatzeko, Mugimendu Autonomoak hezitzaileekiko eskakizun maila handia eragiten duela eta begirada aldaketaren garrantzia azpimarratu dute elkarrizketatuek. Honek psikomotrizistaren jarrerarekin nolabaiteko antzekotasuna duela ondoriozta daiteke. Izan ere, Aucouturier-ek (2004) aipatzen duen bezala, psikomotrizistaren

begirada periferikoa izan behar da haurraren segurtasuna bermatzeko. Gainera, psikomotrizistaren gaitasuna funtsezko elementua da haurraren ekintza ez gidatzeko (Aucouturier, 2018). Hau da, psikomotrizistak haurraren gaitasunetan sinestu behar du eta bidelagun rola izatea garrantzitsua da.

## 6. Ondorioak

Ikerlan honen bitartez jasotako informazio guztia kontuan hartuz ondoriozta genezake elkarrizketaturiko lau irakasleentzat eta baita Berritzeguneko aholkulariarentzat Mugimendu Autonomoa ezartzea hezkuntza sistema hobetu duen pausua izan dela. Izan ere, Mugimendu Autonomoak haurra jartzen du erdigunean eta bere interes eta nahietatik abiatuz ikaskuntza propioa garatzen du. Ikerlan honen bitartez, Mugimendu Autonomoak eta psikomotrizitateak uste nuena baino lotura gehiago dutela ohartu naiz, baina, lotura horiez gain, zenbait korapilo daudela ere jabetu naiz.

Mugimendu Autonomoa, oraindik bizirik dagoen pedagogia da, hau da, garatzen ari da eta ondorioz, horren inguruko informazioa bilatzea oso zaila izan da ez dagoelako inolako dokumentazio ofizialik. Beraz, esan daiteke, ikerlan honen muga edo zailtasun nagusia Mugimendu Autonomoaren inguruko informazioa bilatzea izan dela.

Mugimendu Autonomoaren eta psikomotrizitatearen artean nolabaiteko loturak daudela ondorioztatu dut, baina lotura garrantzitsuena haurra bera izan da. Bai Mugimendu Autonomoan, bai psikomotrizitatean haurra da erdigunea eta haurraren jarduera nagusia jolasa da. Hau da, haurra uneoro protagonista da, bai psikomotrizitate saioan baita eskolako edozein espaziotan ere, eta bere garapen osoa eta orekatua lortzea da helburu nagusia.

Halaber, Mugimendu Autonomoaren eta psikomotrizitatearen artean aurkitzen diren korapiloen artean, mugitzeko espazio falta nabarmentzen da. Izan ere, psikomotrizitatean haurrek mugitzeko duten espazioa ekosistemetan baino zabalagoa da eta haurrek mugimendu hori behar dute garatzeko. Beraz, haurrek psikomotrizitatea nahiago izatearen arrazoia hau izan daiteke.

Ikerketa honen helburu nagusia Mugimendu Autonomoak psikomotrizitatean eraginik ez izatearen arrazoiarekin ematea izan da. Egindako elkarrizketen bitartez

ondoriozta dezaket, Mugimendu Autonomoaren oinarria haurrak libreki edo modu autonomoan ikastea dela eta hori psikomotrizitatean iada bermatzen zela uste zutela. Hau da, elkarrizketatutako irakasle guztiek aipatu didate Mugimendu Autonomia ezartzean psikomotrizitatean aldaketa beharrik ez zutela ikusi eta ondorioz, beste arlo batzuei psikomotrizitateari baino garrantzia gehiago eman ziotela.

Beraz, guzti honekin ondorioztatzen da Mugimendu Autonomia psikomotrizitatearen zenbait alderditan oinarritzen dela baina beraien artean desberdintasun nabarmenak daudela. Beraz, bai Mugimendu Autonomoari, bai psikomotrizitateari behar besteko garrantzia ematea eta osotasunean bermatzea garrantzitsua da haurraren garapen oso eta orekatua lortzeko.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak

- Angel, M.A., Sugrañes, E., Andrés, M.N., Martí, M.T., Martín, R.M., Pinell, M., Rodríguez, N., Yuste, M. eta Yuste, R. (2007). *La educación psicomotriz (3-8 años): cuerpo, movimiento, percepción, afectividad*. Graó.
- Anguera, M.T. (1986). La investigación cualitativa. *Educar*, 10, 23-50.
- Arnaiz, P. (2000). La práctica psicomotriz: una estrategia para aprender y comunicar. *Revista Iberoamericana de Psicomotricidad y Técnicas corporales*, 0, 5-14.
- Arnaiz, P., Rabadán, M. eta Vives, I. (2008). *La psicomotricidad en la escuela*. (2ª ed.). Ediciones Aljibe.
- Aucouturier, B. (2004). *Los fantasmas de acción y la práctica psicomotriz*. Graó.
- Aucouturier, B. (2018). *Actuar, jugar, pensar: puntos de apoyo para la práctica psicomotriz educativa y terapéutica*. Graó.
- Autorerik gabe. (2004). Bernard Aucouturier. *Hik hasi*, 84, 14-21.
- Beñaran, A. (2017). Pedagogo sortzaileak: Bernard Aucouturier. *Hik hasi*.
- Berruezo, P.P., (2008). El contenido de la psicomotricidad. Reflexiones para la delimitación de su ámbito teórico y práctico. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 22(2), 19-34.
- Chokler, M. (2010). El concepto de autonomía en el desarrollo infantil temprano, coherencia entre teoría y práctica. *Aula de infantil*, 53, 9-13.
- Franch, N. (2018). *Poética corporal. Psicomotricidad: cuerpo en movimiento, cuerpo en relación*. Ediciones Octaedro, 21-36.
- García, A. (2017). *Otra educación ya es posible*. Litera.
- Inda, N. (d.g.). *HH oinarri*. Hemendik berreskuratua: <https://www.hhoinarri.net/hasiera>



- Jaurilaritza, E. (2015). 236/2015 DEKRETUA, abenduraren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 141, 1-268.
- Mendiaras, J. (2008). La psicomotricidad educativa: un enfoque natural. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 22(2), 199-220.
- Mendiara, J., eta Gil, P. (2016). *Psicomotricidad educativa*. Wanceulen, 19-35.
- Ozonas, L., eta Perez, A. (2004). La entrevista semiestructurada. Notas sobre una práctica metodológica desde una perspectiva de género. *La Aljaba*, 9(5), 198-203.
- Pikler, E. (1984). *Moverse en libertad: desarrollo de la motricidad global* (92). Narcea Ediciones.
- Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia. (2021) **Orotariko Euskal Hiztegia** (9.arg.). [Orotariko Euskal Hiztegia - OEH - OEH \(euskaltzaindia.eus\)](https://euskaltzaindia.eus)
- Robles, B. (2011). La entrevista en profundidad: una técnica útil dentro del campo antropofísico. *Cuicuilco*, 18(52), 39-49.
- Rodríguez, A. (2016). Metodología berritzaileak Haur Hezkuntzan.
- Taylor, S.J. eta Bogdan, R. (1987). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Paidós.
- Urresti, M. (2017). Zer garrantzi dauka helduaren begiradak haurren haziera eta heziketa prozesuan?. *Hik hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, (217), 36-37.
- Vallés, M. (2013). La psicomotricidad que fomenta la felicidad y cultiva las habilidades emocionales. *Revista Especializada en Psicomotricidad*, 32, 5-8.
- Vecchi, V. (2013). *Arte y creatividad en Reggio Emilia*. Ediciones Morata.